

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2558

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 23koa, Bizkaiko Industria Administrazioiko lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez berritzen baita ADSIS Fundazioaren baimena, baimendutako profesionalak prestatzeko aitortutako entitate gisa.

Espediente zk.: 48-EX-D-2022-3.

AURREKARIAK

Bat.– ?Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko den martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuarekin bat datozen zenbait ebazpenek onartu dute ADSIS Fundazioa profesional baimenduak prestatzeko aitortutako entitatea dela honako espezialitate hauetan:

- Iturgintzako instalatzailea.
- Hozgarri fluoratuen bidezko edozein kargatuko hozte-sistemak dituzten ekipamenduen manipulazioa.
- Gas-fluoratuen bidezko 3 kg baino gutxiagoko kargako hozte-sistemak dituzten ekipamenduen manipulazioa.

Bi.– ADSIS Fundazioaren ordezkaritzak, 2022ko apirilaren 29an, aitortutako erakunde-izaera berritzeko eskabidea aurkeztu zuen aipatutako espezialitate horietan profesionalak prestatzeko.

Hiru.– Eskabide horrekin batera, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak (industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko denak) V. kapituluaren aurrekustean dituen baldintzak eta betekizunak oraindik ere betetzen zituela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu zen.

Lau.– Bizkaiko Industria Administrazioiko Lurralde Ordezkaritza horretako Administrazio Industrialeko eta Energetikoko teknikariak, 2022ko maiatzaren 20an, berritze-baimenaren aldeko txostena eman dio ADSIS Fundazioari aitortutako entitate gisa jarduteko.

Espedientearen ebazpenean, honako hauek hartu behar dira kontuan eta berariaz aipatu:

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Bizkaiko Industria Administrazioiko lurralde-ordezkaria da ebazpen hau ezartzeko organo eskuduna, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Bi.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko den martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, gaur egun halako aitortpena duten entitateek 5 urtean behin berri beharko dute baimena, hura emateko baldintzak eta betekizunak betetzen jarraitzen dutela egiaztatu ondoren.

Hiru.– Bizkaiko Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzako meatze-teknikariak egindako txostenaren arabera, eta bertan aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, egiaztatuta geratu da ADSIS Fundazioak oraindik betetzen dituela martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritako baldintzak.

Ikusita aipatutako lege-aginduak eta aplikatu behar diren eta bat datozen beste arau orokor batzuk, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Baimendutako profesionalak prestatzeko aitortutako entitate gisa berritzea ADSIS Fundazioa, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko den martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren arabera.

– Iturgintzako instalatzailea.

– Hozgarri fluoratuen bidezko edozein kargatuko hozte-sistemak dituzten ekipamenduen manipulazioa.

– Gas-fluoratuen bidezko 3 kg baino gutxiagoko kargako hozte-sistemak dituzten ekipamenduen manipulazioa.

2.– Aitorpen hori daukan entitate orok bete beharko ditu aplikatu behar diren legezko eta arauzko xedapenetan ezarritako betebeharrak, eta, zehazki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluaren aurreikusitakoak.

3.– Aitorpena duten entitateek aipatutako dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren araberrako betebeharrak eta konpromisoak urratzen badituzte, aitorpen hori galdu ahalko dute.

4.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

5.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomia-ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Bilbao, 2022ko maiatzaren 23a.

Bizkaiko Industria Administrazioako lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.